



## Kosmodisea 2007-2008ko Mito Planetako irabazleak

---

Txingudi Ikastola (Irun), Orokieta Herri Eskola (Zarautz), San Vicente de Paul (Irun), Lasarte-Usurbil BHI eta Nazaret Zentroa (Donostia) Kosmodisea 2007-2008ko Mito Planetako irabazleak izan dira.

*Txingudi Ikastolaren lana ikusi*

*Orokieta Herri Eskolaren lana ikusi*

*San Vicente de Paul Ikastetxearen lana ikusi*

*Lasarte-Usurbil BHIren lana ikusi*

*Nazaret Zentroaren lana ikusi*

Lehen Hezkuntzako (Neo Sistema – 1., 2. eta 3. mailak) lehen saria Irungo Txingudi Ikastolak lortu du, bere bideo-lanari esker. Ikasleek dramatizatutako lan horretan, migrazioari eta inguruneari buruzko zenbait gogoeta egiten ziren.

Zarauzko Orokieta Herri Eskolak ere Lehen Hezkuntzako lehen postua lortu du, baina Fisio Sistemari dagokion kategorian (4., 5. eta 6. mailak). Eskola horrek, bideo baten bidez, energiaren erabilerari buruz gogoeta egiteko antzezpen bat aurkeztu zuen.

Bigarren Hezkuntzan (Glos Sistema), Irungo San Vicente de Paul Ikastetxeak lortu du puntu gehien, hiriko eta baserriko bizitzaren aldeak aztertzen dituen lan bideografiko bati esker.

Batxilergo-mailan (Logo Sistema), Lasarte-Usurbil BHIk eskuratu du lehen postua. Eskola horrek, "Leningrado" izenburuko ikus-entzunezko lana aurkeztu zuen.

Bukatzeke, Heziketa Zikloetan (Tékhne Sistema), lehen postua Nazaret Zentroarentzat izan da, "Bakarrik idazten duen bolalumari" buruzko proposamen bideografiko originalari esker. Luma estilografiko elektronikoko hori, mikroprozesadore baten bidez, aurretik memorian gorde zaiona bakarrik idazteko gai izango litzateke.

---